

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko urtarrilak 11 • 90.zka. •

BETRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7 - 2. ESK.
ARETXABALETA

Zinemaren inaugurazioa

Hilario Bartolome: Jaiotzak egiten

Murrukixo: Mendi hilabetea

Coprecin osasuna zaintzen

**Ze erru duzu zuk,
gero eta errezago
jartzen badizute?**



R- 195 P 1.4 Driver 1.625.000 pezetatik hasita

- 1+2 garantia haunditzearekin
- Phillips Radio Cassett, frontala ateratzekoa

Renault 19




Ze erru duzu zuk onena gustatzen bazaizu?

RENAULT

Garraioa, BEZa, matrikulazio zerga eta promozioa barne. Otsailaren bukaerararte

Etorri ikustera:

MECA



Lantegian kirola egiteko aukera izateari zer deritzozu?

Mari Kamen Bakaikoa
(Etxekoandrea)

Niri oso ondo iruditzen zait. Gorputza relajatu egingo da horrela eta lana ere hobeto egingo da gero.



Lurdes Edorda
(Langilea)

Nire senarra Co-prezin dabil lanean eta gimnasiara joaten da. Gustora ari da eta niri ere oso ideia ona dela iruditzen zait.



Manuel Urtubi
(Langilea)

Oso ondo iruditzen zait. Gorputza ez da beti leku berean eduki behar, mugitu egin behar da. Nik uste dut egingo nukeela.



Angel Bedia
(Langilea)

Ondo iruditzen zait. Ezagutzen ditut gimnasia egiten duten batzuk eta oso pozik daude. Nik ere aukera izan ezker egingo nukeen.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

Atxabaltako udaletxean entzerratuta
egon direnen komunikatua

Lotsagarria eta onartezina da Espainiar Estatu honek, ustez demokratikoa, Euskal preso politikoekiko duen jarrera.

Ez dute nahikoa epaitegi berezietan eginiko sasi epaiketetan ezarritako kartzela zigorrekin, eta honi, eguneroko bizimoduan beste zigor batzuk eranstean die, euren legeak ere errespetatzen ez dituztelarik.

- Euskal Herritik urruti eramaten dituzte, modu honetan presoek senitartekoak ere zigortuz.
- Isolamendua, hilabeteetan eta baita urteetan ere luzatzen dena.
- Funtzionarioek zein guardia zibilek emandako jipoiak bai espetxean bertan eta baita trasladoetan ere.
- Baldintzapeko askatasuna sistematikoki ukatzen zaie nahiz eta legeak ezarritako baldintzak bete (zigorraren 3/4ak beteak izan edota gaixotasun sendaezin bat izatea).
- Eskubide oinarritzkoenak ere ukatzen zaizkie, hala nola, ikastekoa, Euskara erabiltzearena, konfidantzazko sendagile baten bisitak, eta abar.

Ezin dugu ahaztu, bestalde estrategia hau, PSOEk diseinatu eta burutu badu ere, EAJ eta EAren laguntzarekin egin duela, bestela ez zen posible izango eta, alderdi hauen babesik gabe horrelakorik gauzatzea.

Egoera honen aurrean, eta Euskal Herriko hainbat tokitan bezala, Aretxabaletako udaletxean 20 lagun entzerratu gara, honako helburu hauekin:

- 1.- Euskal presoek aurka ematen ari den estrategia mendekatzaile eta legez kanpoko hau salatzea.
- 2.- Euskal presoek eskubide guztiak errespetatu daitezela esigitzea.
- 3.- Presoekiko elkartasuna adieraztea.
- 4.- Demokrata sentitzen diren guztiei deia luzatzea egoera honekin amaitzeko borrokara lotu daitezen. Giza ekubideen defentsa guztien betebeharra da, eta honelako egoera baten aurrean isilik egoteak eta pasibitateak Estatu zapaltzaile honen babesle bihurtzen gaitu.

PRESOAK EUSKAL HERRIRA
Aretxabaletako Amnistiaren aldeko Gestora

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia
Erredakzio-kontseilua: Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantza Abasolo, Xabier Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Loramendi E., Udala.
Inprimategia: Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Ezin gabonetan herriko plaza arbola ipini gabe utzi. Aurtengo urteko arbola gainera dotore askoa zen eta ondo txukundutakoa gainera. A ze pena! dagoeneko kendu dute eta.



Umeentzat ekintza asko egon da gabonetan. **Ortzadarrek** egin duen lana ezin aipatu gabe utzi. Guztion gabonak alaitzen ahalegindu dira, eta benetan zoriontzekoa da egin duten lana. Ekintza batzuk antolatu eta beste batzutan lagundu, horrela aritu dira. Ludi Berri taldearekin Camp dantzaldia, Ñake antzerki taldea, Olentzero egunean kantuan, Olentzero, Gabon PIN-era urteera, e.a.

❄️ Aurtengoz bukatu ziren gabonak ❄️



Gabonetan ere, presoekin elkartzasuna adierazteko eta euren egoera salatzeko, 20 laguneko taldea entzerraturik egon zen udaletxean. Ondoren, enkartelada egin zuten, presoek Euskalerriratzea eskatuz.



Erregeek gabonei bukaera eman zieten. Ohikoa den moduan, lagun asko bildu zen Melchor, Gaspar eta Baltasar ikusteko. Plazan Jose, Maria eta Jesus ere zain zeuden erregeak noiz iritsiko.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Artano
Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA



**TABERNA-BERRI
JATETXEA**

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

Takolo, Pirrux eta Porrotx pailasoekin eta atzeratuen aldeko jaialdiaz egingo da Zاراia zinemaren estreinaldia

Urtebete baino gehiago itxita egon ondoren datorren urtarrilaren 13an, zapatua, izango da Zاراia zinemaren inaugurazio ofiziala.

Behar den moduko estreinaldia egiteko, bi emanaldi garrantzitsu antolatu dira egun horretarako. Alde batetik, Takolo, Pirrux eta Porrotx pailasoak. Eta bestetik, azken bi urteetan antolatu barik egon den Atzeratuen aldeko jaialdia.

Pailasoen ekitaldia arratsaldeko 5etan ekingo da eta sarrerak aurrez Kultur etxean, ludotekan eta kiroletxean, 300 pezetatan salgai daude edo bestela takilan bertan 500 pezetatan.

Blues-a, akordeoia eta txiste lehiaketa

ARATZ elkarteak antolatutako Atzeratuen aldeko jaialdia barrez, gaueko 9,30etan ekingo da. Jaialdian, honako ekitaldiak egingo dira:

“Sonora Cerrajera” taldea, Aretxabaletako gaztetxoan akordeoi orkestra eta txiste lehiaketa. Azken hau, 8 urtetatik 14 urte bitarteko gazteentzat zuzenduta dago eta oraindik ere apuntatzeko epea zabalik dago, horretarako kultur etxera jo behar da edo eta bestela jaialdian bertan aurkeztu.

Jaialdiko aurkezleak zeintzuk izango diren ezin aipatu barik utzi, horretan arituko dira, Eider Otxoa eta Jon Antxia.

Txiskola lehiaketako irabazleak jaialdian

ARATZ taldekoek beti antolatu izan dute zeozer barria. Aurten ere txiste lehiaketa dela eta, Txiskola programan irabazle izan ziren abadiñoarrak hemen izango dira txiste kontari.

Zinemaren estreinaldirako ekitaldi proposak dira eta zinemako 490 aulkiak aguro beteko direla uste da.

Zineko pelikulak noizko?

Udaletxeak oraindik ez daki noiz hasiko diren zineko proiektioekin. Orain artean, Inaxio Lopez de Uraldek, bere borondatez eramaten zuen zineko gestioa. Azken honek utzi egin dio lan horri eta hemendik aurrera zinearen explotazioa enpresa bati emango zaio, postua publikora ateraez.

Enpresa honen esku zineko explotazio guztia geldituko da, baina herri-tarrek zinea erabili gura izan ezker lehentasuna izango dute. Hori bai, hilabete baino lehenago baimena eskatu beharko da, enpresak denboraz jakin dezan.

Baimena eskatzerako orduan, 500 pertsona baino gutxiago sartzen diren lokaletarako, Aretxabaletako zinea kasu, nahikoa da Udal baimena eskatzea, eta ez da beharrezkoa Eusko Jaurlaritzarena.

Abenduan, Kurtzebarri eskolako 8. mailakoek, Donostiako Santo Tomas Lizeoak antolatutako Mari Karmen Alzueta literatur lehiaketan 2. saria eskuratu zuten. Partehartzeko aiton-amonei buruzko erreportaiak egitea zen helburua. Informazioa, aldizkarietan, egoitzan, inkestak eginez, e.a. atera zuten. Saria jasotzera gela guztiaren izenean, gelako hiru pertsona joan ziren. Hala ere, beste lagunak ere han izan ziren.

SantaKurtz kaleko itxiduran aldaketak

SantaKurtz kaleko itxidurak aldaketa barria du urtarrilaren 8a geroztik. Eskolorduetan, piboteak Kurtzebarri eskolaren bi aldeetan jarri dira, behar den moduan seinalizatutako kateen bidez elkartzen direnak. Iparraldeko itxierako piboteetan, debekatutako norabidea adierazten duen ikurra jarri da, baina eskolorduetarako bakarrik. Hau dela eta, eskolorduetatik kanpo trafikoa bi norabidetan ibili ahal izango da. Barruan aparkatuta gelditzen diren kotxeek ez dute urteteko arazorik izango.

Durana eta Mitarte kalean ere aldaketak

Durana eta Mitarte kaleei dagokien itxidura sisteman ere aldaketa batzuk daude urtarrilaren 8a geroztik. Orain, trafikoa ixten duten posteak kateen bidez elkartzen dira. Honez gain, posteetan, txirrin-du eta motorren joan-etorria debekatzen duten seinale batzuk jarri dira. Mitarte eta Durana kaleak oinezkoendako erabiltzen direnean, motor eta txirrinduak sar ez daitezten.



T
X
I
L
A
R
R
A



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

Hiru mozio onartu ditu udalak

Abenduaren 11an hiru mozio aurkeztu ziren udaleko plenoan eta hirurak onartu ziren. Hoietatik bat, SENIDEAK elkarteak egin zuen Euskal presoengain inguruan. Beste biak EA, PNV eta PSEko zinegotziek aurkeztu zituzten, lehena, ertzantzarekin herrian gertatu ziren istiluen ingurukoa eta giza eskubideei buruzkoa bestea.

• **SENIDEAK** elkarteak egin zuen mozioak honako hau onartzea eskatzen zion Aretxabaletako udalari:

1.- Preso eta euren familiarren oinarritzko eskubideen baldintzarik gabeko errespetoa.

2.- Udalak berea egin dezala presoak eta euren senitartekoek egindako eskaera, hau da, Euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzea. Honela, Aretxabaletako bizilaguna den Kepa Urrak sententzia bere jator lekuan betetzea eskatuz.

3.- Legeak markaturiko baldintzak betetzen dituzten preso guztien baldintzapeko askatasunaren aplikazioa. Konkretuki, kartzela zigorraren 3/4ak bete dituztenak eta gaixotasun sendaezinak jasaten dituzten guztientzat.

4.- Udal Batzak hartutako erabakiak Gasteizko parlamentuko giza eskubideen batzordera, komunikabideetara eta familiarrengana bidali ditzala, eta aipaturiko batzorde horri, akordioak bete daitezela eskatzea.

• **EA, EAJ eta PSEko zinegotziek** barrez, honako akordioak onartzea eskatu

zioten Udal Batzari:

1.- Aurreko hilabetearen ertzantzarekin gertaturiko istiluen ondoren, Ertzantzak Aretxabaletan egiten duen lana eta ekintza desberdinei buruz Udal honek berri izan dezala eta ahal den neurrian Udal honekin koordinatu daitezela aipaturiko lanak eta ekintzak. Horretarako Udal honek parte hartu dezala horretarako diseinatutako foroetan.

2.- Udalaren eta herritarren patrimonioarekiko errespetoa eskatzea eta beraz gogor salatu joan den astean izandako paper eta beiraren kontenedoreen erreketak, bus geltokian kristal apurketa, herriko fatxada desberdinetan egindako pintadak eta PSE-PSOeko sedeak jasandako erasoa.

• 3. mozioa ere, **EA, EAJ eta PSEko zinegotziek** aurkeztutakoa da eta giza eskubideen errespetoan datza. Honako hau eskatzen diote Udal Batzari:

1.- ETari Jose M^a Aldaia eta bere familiarren oinarritzko eskubideen baldintzarik gabeko errespetoa eta Jose M^a Aldaia berehala aske uztea.

2.- Udal Batza honek hartutako erabakiak Gasteizko Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordera, Komunikabideetara eta Jose M^a Aldaiaren familiarengana bidali ditzala.

Abenduaren 11n egin zen plenoan, hiru mozioak onartu ziren. Senideak elkarteak eginikoak guztien oniritzia jaso zuen. Beste biak barrez, EA, EAJ eta PSE-ren oniritzia eta HBren abstentzioa.

Loramendi literatur lehiaketako sari banaketa

Urtarrilaren 24an Loramendi literatur lehiaketako sari banaketa egingo da Loramendiko lokalean. Arratsaldeko 7retan ekinda, aurtengo urteko irabazleen izenak jakitera emango dira. Partaidetza oso haundia izan da, denera 207 lan aurkeztu dira eta.

PESA autobus zerbitzuan aldaketak

Urtarrilaren 8a geroztik aldaketa batzuk egin ditu PESA autobus zerbitzuak. Ordutegiari dagokionez ez dago aldaketa nabarmenik. Geltokiari dagokionez barrez, bi geltokietan gelditzen diren autobusak gehitu egin dira. Egon diren aldaketak geltokietan jarrita daude dagoeneko eta ondo begiratu hortaz. Dena dela, norbaitek autobusen ordutegia gura izango balu Udaletxean eskatu dezake.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Gabonak pasatzen kanpoko lagun asko egon da Aretxabaletan. Hoiien arteko bat Mercedes Altube mexikarra izan da. Mexiko estatuko erdi-erdian bizi da, Querétaro hirian hain zuzen ere. Mercedesek familiartekoak ditu Aretxabaletan, bere aitona, Julian Altube Arrazkarate, atxabaltarra gazte-gaztea zenean joan zen Mexikora, eta bertan ezkondu eta bizitzen gelditu zen.

Etxean moduan sentitu da hemen. Euskal Herria bere bigarren aberria dela esaten du.



Mercedes Altube: "Euskal Herria nire bigarren aberria da"

• **Nolatan etorri zara hona gabonak pasatzera?**

Alde batetik hemen ditudan familiartekoak ikusteko gogo handia nuen. Bestetik, gabonak nola ospatzen dituzuen ikusi gura nuen. Orain aupa moduan Ingalaterran nago eta aukera ezin hobea nuen ona etortzeko.

• **Lehenago ere etorrita zaude ezta?**

Bai, orain dela sei urte etorri nintzen eta orduan bost urtetara ostera ere etorriko nintzela esan nuen, eta hala izan da. Euskal Herriko leku asko bisitatu nituen orduan, Arrasate, Gasteiz, Zarautz, Getaria, e.a. Kurtzebarria ere igo nuen.

• **Zer egin duzu hemen egon zaren egun hauetan?**

Familiarteko guztiak bisitatu ditut eta berbetan aritu gara. Txikiteoan, hortan ere aritu naiz eta hori bai erregina moduan jan dut hemen. Oso ona da Euskal Herriko janaria. Denetik jan dut gainera, angulak ere bai.

• **Hemengo zein janari gustatu zaizu?**

Arraina asko gustatzen zait, kokotxak, angulak, e.a. Baina orokorrean hemengo janaria dena gustatzen zait. Errioxako ardoa ere bai. Dagoeneko merkatua hain zabalik dagoenez Mexikon ere denetik aurkitu daiteke, patxarana ere bai.

• **Eta zuek zelan**

ospatzen dituzue jaiak Querétaron?

Abenduaren hasieran tamainu naturala duen jaiotza jartzen da Querétaro erdian dagoen parke batean. Honez gain, festa asko egiten dira, bertako dantzak, abestiak, txontxongiloak, karroza desfilea, errege kabalgata, e.a.

• **Zer iruditu zaizkizu hemengo gabonak?**

Antzerakoa da leku guztietan baina hemen lehenagoko ohiturak gorde egin dira. Olentzerorena esaterako. Tradizioak garrantzi handia du.

• **Zelakoa da Querétaro zure herria?**

Queretaroko klima epela

da eta herria oso handia eta industrialia da. Bi milioi biztanle inguru ditu.

Koloniala, espainiar eta euskaldun asko bizi da bertan. Mexikoko kapitaletik 2 ordutara dago.

• **Euskaldun asko dago?**

Bai, euskaldun asko dago Querétaron eta baita Mexikon ere. Nire etxe ondoan esaterako Iker izena duen jantzi denda bat dago eta Alai izeneko jatetxea ere bai. Ikurrinak ere han eta hemen ikusten dira, baita kotxe askotan ere.

• **Gaur egun zelako egoera bizi duzue han?**

Lehendakari barria daukagunetik, Salinas de Gortari, pesoak izugarrizko devaluazioa izan du.


Dolarra oso altu dago Mexikoko pesoaren aldean, eta horregatik enpresa asko ixten ari dira.

• **Zer gurago duzu hango bizimodua edo hemengoa?**

Oso desberdina da. Mexikarrak oso patriotak gara. Euskadi nire bigarren aberria moduan ikusten dut, nire familiartekoak hemen ditudalako. Nire aitona ere hemengoa zen eta honen eragina beti nabarmendu izan da nire etxean.

• **Berriz etortzeko asmorik baduzu?**

Bai, berriz ere etorriko naizela uste dut, ni gustora etortzen naiz hona. Orain hemengo nire familiartekoei hara joatea tokatzen zaie.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA



SUAREN GAINEAN DANTZAN (I)

Historian zehar, gizakiak etengabe sortu izan ditu hondakinak, baina azken mende honetako iraultza demografikoa dela kausa, zaborra benetako arazo ekologiko eta higienikoa bihurtu zaigu. Zarama gehiegi produzitzen dugu eta jadanik alfonbraren azpian lekurik ez zaigu geratzen. Zer egin beraz hondakin guzti horiekin?

Zaborraren tratamendu ideala

Gizarteko alderdi guztien artean, Hiriko *Hondakin Solidoen* (HHS-en) tratamendurako ordena ideal bat ezarri da: Lehendabizi sortzen den **zaborra gutxitu** egin behar dugu, ahal den heinean behintzat. Ematen den adibide tipikoa erosketak egitean beharrezkoak ditugun baino plastikozko poltsa gehiago ez hartzekoa da. Bigarren pausua, posible den **zarama berrerabiltzea** da; esate baterako kristalezko ontziak itzuliz (garagardo botilak kasu), jantzi zaharrak behartsuei emanez, eta beste hainbat erata. Bi pausu hauek burutu ondoren gertatzen den zaborraren parte bat oraindik aprobetxa daiteke **birziklapenaren** bidez. Honetarako ditugu Aretxabaletan beira eta papera bilzteko kutxak.


Hiru pausu hauek ez dira nahikoa zabor guztiari irteera emateko, eta horrela, laugarren pausua intzinerazioak (errausketak) betetzen du, honek zaborraren bolumena %30-era jeisten baitu. Azkenik hondakinen errauskak **zabortegetan gordeko** dira.

Oraingo egoera

Gaur egun, lehen hiru pausuk oraindik jaioberriak dira zoritxarrez eta Institutioek orden hori aldatzea erabaki dute. Zaborraren zati minimo bat birziklatu egiten bada ere, HHS-en lehendabiziko pausua intzinerazioa izaten da eta bigarrena zabortegeiak. Orden aldaketa honek aldeko eta kontrako oihuak altxatu ditu. Intzineradoraren nagusi-

tasun honen alde daudenek arguditzen dutenez, erreketak HHS-en bolumena gutxitzen duenez oso irtenbide egokia da, eta gainera emisio kutsakorrek kontrolatzeko inolako problemarik ez dago, oso teknologia aurreratua baitugu. Honetaz aparte, zaramaren erreketak ematen duen beroarekin argi indarra ateratzen da.

Kontra daudenen ustetan aldiz, errausketa ez da zaborraren kontrako panazea, HHS-en bolumena ez baita kontutan hartu beharreko faktore bakarra. Bigarren hauen esanetan, gaurko egoera ekonomiko larria gogoan izanik ez ote da hobe zaborren artean aprobetxagarria dena aprobetxatzea? Zaramaren %30-a behintzat erraz aprobetxa daiteke (ikus irudia),



hau da, papera eta kartoia, metaleak, jantziak eta beira (kristala). Lizarran buruturiko proiektu batetan materia organikoaren gehiengoa ere aprobetxatu zen *konpostaje* bidez ongarri bihurtuz. Bestalde intzineradora kontrolaturik dagoeneko baieztapena ez dute argi ikusten, izan ere *dioxinak* (zenbait produktoren erreketatik sortzen diren sustantzia kantzerigenoak) kontrolatzea izugarri zaila baita.

Euskal Herriko intzineradora bakarra alboko herrian daukagu, ez pentsa beraz, honako hau urrutiko arazoa denik. Gai honen garrantzia kontutan izanik, hurrengo **Aretxagazetan** ere intzinerazioaren inguruan arituko gara.

Mikel Arroiabe

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



AITZIBER
Umeak

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

MEMESA S.L.

Industriaren alde


Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



Berrikuntzak

MODAN
DAGOEN
GUZTIA

Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE




● Hilario Bartolome ●

Jaiotzak egiteko afizioa

Gabonak pasatu badira ere, Hilario Bartolomeren etxean Jaiotzak urtarrilaren 20 arte ez dute kenduko. Eta ez da nolanahiko jaiotza gainera, bertara hurbildu diren guztiak aho zabalik gelditu dira. Aurtengo urtean esaterako, 60 lagunetik gora pasatu da bere etxetik jaiotza ikusteko; gehienak ikastole-tako haurrak.

Bizitasuna duen jaiotza da eta benetakoa dirudi. Mendi artean sortutako herria. Errota, granja, gaztelua, baserriak, ur putzuak, ikusi daitezke bertan. Pertsonaia desberdinak, Jesus, Maria eta Jose, artzainak, erregeak, errementaria, oilarrei jaten ematen ari den gizona, ura dakarren neska, arrantzalea, nekazaria, errotatik ogia dakarren mutila. Animaliak, txerria, astoa, ardiak. Eguna joan eta gaua etortzean etxeetako argiak pizten direna, errotaren mugimendu ixila ikusi daitekeena, ura dakarren iturria, sua darion egurra. Ez da ezer falta, detaile guztiz eginiko jaiotza zoragarria da.

Baina guzti hau ez da aurtengo kontua bakarrik. Izan ere, Hilariok, gazte-gaztetandik du jaiotzak egiteko afizioa. Hilario errioxarra da izatez, Hormilla herrian



jaiotakoa. Bertan hasi zen jaiotzak egiten, bere arrebarekin batera. Etxean eta elizan jartzen zuen jaiotza eta diru puxkat ere ateratzen zuen horrela.

Etxean duen moduko jaiotza dotoreak egiten barrez, 18 urtetik gora daramatza. Baina ez ditu beti berdinak egiten. Urtero urtero zeozer berria jartzen du, eta beste gauza batzuk aldatu egiten ditu. Aurten esaterako, okindegi eta buztindegia egin ditu eta datorren urteko jaiotzan jarriko ditu.

Gabonak heldu baino aste batzuk lehenago hasten da Hilario dena prestatzen. Argia, ura eta dena bere lekuan jartzea ez da nolanahiko lana. Denetatik zailena argia jartzea dela dio, konplikatu samarra baita. Eta noski horrelako lan bat egin ondoren pozik egoten da jendea jaiotza ikustera joaten zaionean, *"Benetan pozgarria da jendeak zuk egindako lana ikustea eta beren eritzia entzutea."* Eta beste edozeinek ere joan gura izan ezker, beldur gabe joan daiteke, Hilariok pozik hartuko baitu etxean. Benetan merezi du horrelako jaiotza polit bat ikustek. Polita izango litzateke datorren urtean denok ikusteko moduko leku publiko batean jarriko balu.



GARAGE NORTE S.L.


Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETAKO

Iazko martxoan, Copreci kooperatibak osasun programa barria jarri zuen martxan, ATHLON, kirol zerbitzu entresarekin batera. Lantegietan gertatzen diren osasun arazoak direla eta, tendinitis lumbagoak, e.a. prebentzio aldetik zeozer egitea garrantzitsua zela pentsatu zuten, bai Coprecik eta baita ATHLON enpresak ere. Horregatik, bere langileak ahalik eta egoera onean mantentzeko lantegiko osasun programari, prebentzio maila barria gehitu diote.



Prebentziorako hezitzen

Iniziatiba hau, esperientzia guztiz barria da gure inguruan. Dagoeneko 9 hilabete pasatu dira martxan jarri zenetik eta ondorioak luzarora ikusiko diren arren, langilegoarengan izan duen harrera positiboa izan da.

Orain artean 133 pertsonak hartu dute parte programan, 9 taldek guztira. Baina oraindik beste 4 talde egingo dira aurtengo urtera begira.

Ergonomia baino gehiago

Gaixotasun eta gaitzak gertatu ondoren, irtenbidea bilatzea izan da betiko joera. Aurrera begira barrez, lantegiko osasun programa honen bidez prebentzioaren aldeko

Eguneroko jarrera okerrak zuzendu eta gorputzeko indarra, flexibilitatea, e.a. hobetzen lagunduko duten ariketen bidez, bizitza kalitatea hobetzea da programaren helburua

jarrera hartu gura da. Langileak jasaten dituen lesio hoiek ekiditu edo eta ahalik eta beranduen sortu daitezela da helburua.

Orain arte, ergonomiaren bidean lan egin du Coprecik, hau da, lanpostua langilearen baldintzetara egokituz. Horrela, langileak esfortzu txikiena eginez egokien lan egingo duen lanpostuak sortuz. Baina hau nahikoa ez dela ikusi dute, tartean pertsonaren eragina ere badagoelako. Adina, urte askotan lanpostu berdinean egotea, jarrera ez egokiak, denak du eragina pertsonaren osasunean. Hori dela eta, guzti honetan enpresak ere bere ardura baduela uste izan du Coprecik.



Begoña Uribetxebarria

Begoña Uribetxebarriak ATHLON enpresak eginiko osasun programan parte hartzen du. 15 bat klase hartu ditu dagoeneko eta oso gustora ei dabil.

Osasun programa honen barri izan zenuenean zer iruditu zitzaizun? Zergaitik apuntatu zinen?

Oso ideia ona iruditu zitzaidan. Nire aizpa nire aurretik hasi zen eta hari entzun nion gustora ari zela. Orduan neu ere apuntatu egin nintzen. Batzutan bizkarreko minekin ibiltzen naiz eta ariketa

batzuk egitea ondo etorriko zitzaidala pentsatu nuen. **Igarri duzu mejoriarik?** Momentuz ez baina lehen etxean ez nuen ariketarik egiten eta programan nabilenetik etxean ere gauetan ariketa batzuk egiten ditut.

Gustora ari zara? Zer da programatik gehien gustatzen zaizuna?

Bai, gustora ari naiz. Giro ona egoten da klasean, barre batzuk ere egiten ditugu. Musika leuna jartzen digute eta lasaitu egiten gara. Niri estiramentuak gustatzen zaizkit gehien.

Horrelako ariketak egiten dituzun lehen aldia da?

Ez, egia esan kirol etxean ere gimnasia klaseetan ibilita nago baina gauza batzuk barriak dira niretzat.

Zer esango zenieke, programan parte hartzen ez duten beste langileei?

Animatzeko esango nieke. Dagoeneko nire ondoan lan egiten dutenei esan diet etortzeko. Erlajaziozko, berotzeko eta bestelako ariketak egitea ona izaten da gorputzerako.

Bizitza kalitatea helburu

ATHLON eta Coprecik bide-ratzen duten programa honen helburua, eguneroko jarrera okerrak zuzendu, eta flexibilitatea, indarra, e.a. hobetzen lagunduko duten ariketen bidez, bizitza kalitatea hobetzea da.

Lantegian bertan finkatu dira programa aurrera eramateko instalazioak, gimnasioa, bizikletak, e.a. Kirol instalakuntzak beste edozein langilek erabiltzeko aukera ere badago eta aurrerantzean jubilatuei ere erabiltzeko aukera luzatu zaie.

Programak hiru zati ditu, azterketa medikua, 16 ordutako saio praktikoa eta norberaren ardura-pean egongo diren ariketen jarraipena.


Horrela, astean birritan ordu-beteko saioa egiten dute programan partehartzen duten bazkideek. Bertan, osasunaren inguruko hainbat informazio teoriko jasotzen dute. Honez gain, berotze, flexibilitate eta indar ariketak, jarrera eta mugimendu okerren berreziketa (pisuak nola hartu, kotxean nola jarri, ohetik zein modutan jaiki, e.a.) eta bukatzeko erlajaziozko arikerak lantzen dituzte.

Baina hau klasean egitea ez da nahikoa. Partehartzaile bakoitzari, bere patologiarri dagozkion ariketa-taula egiten zaio, ariketak etxean egiten jarrai ditzan. Azken finean ez da ordu batzutako kontua bakarrik, eguneroko bizitzan osasuna eta pertsonaren jarrerak egokienak izan daitezen hezitzeko programa ere bai. Modu honetan, langilearen bizitza kalitatea aspektu guztietan hobetuz.

Bazkideengan, programak izan duen harrera ona izan da, eta orain artean bertan ibili direnek ere, positiboki baloratzen dute inizatiba. Hala ere, oraindik goiz da ondoriorik ikusteko baina aurrerantzean izango du zer esanik prebentzio maila berri honek.



ATHLON enpresako, Lorea Garai medikua eta Joseba Narbaiza Hezkuntza fisikoan eta kiroltan lizentziatua, arduratzen dira programa aurrera eramateaz. Programak, 3 hilabetetan zehar luzatzen diren 16 saio praktiko ditu. Lehenengo hilabetean, astean birritan izaten dituzte klaseak. Hurrengo bi hilabetetan barrez, astean behin.



“Milan” taldea nagusietan eta “Txikis” taldea txikienetan nagusitu ziren Peña Zubizarreta txapelketan

Gabonetan Peña Zubizarreta futbito txapelketa jokatu zen Aretxabaletan. 9tik 16 urtera arteko mutikoez partehartu zuten, bi taldetan banaturik. Txikienetan 9tik 12 urtetara bitartekoetan 6 talde aritu ziren, nagusienetan barrez, 5.

Urtarrilaren 5ean eman zitzaion amaiera txapelketari eta talde guztientzat egon zen saria. 9tik 12 urtera bitartekoetan honela gelditu zen lehenengo hiru taldeen sailkapena:

- 1.- Txikis
- 2.- Rox
- 3.- Ramon



Milan taldeko jokalaria trofeo eskuan dutela

12tik 16ra bitartekoetan:

- 1.- Milan
- 2.- Gaitas
- 3.- Extrella Roja

Bi sariri aipamen berezia egin behar zaie. Atezain onenaren saria, **Unai Leibarrentzat** izan zen eta jokalaria onenarena barrez, **Iker Oruetarentzat**.

Txapelketako arbitro lanak Dabid Merinok egin zituen.

Tai Chi ikastaroa

Tai Chi-a, Txinako arte zaharra moduan ezagutzen da. Osasuna mantentzeko, norberaren defentsarako eta garapenerako ona da eta baita, konzentrazioa eta lasaitasunerako.

Tai Chi ikasi gura duenak aukera ezin hobea dauka aurtengo urtean.

Eskoriatzan eta Arrasaten emango da. Eskoriatzan, martizen eta eguenetan arratsaldeko 6,45etik

8retara eta Arrasaten egun berdinetan baina

8,15etatik 9,30etara.

Urtarrilaren 9an hasiko da ikastaroa eta Valentin Zurbanok emango du.

Apuntatu gura izan ezkerro 71 41 91 telefonora deitzea besterik ez duzue, apuntatzeko epea zabalik dago eta.

EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea 1-04
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETAKO

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETAKO

JOSU

HARATEGIA

URDAITEGIA-
GOZOTEGIA
KROASANTEGIA
"JANARI
PRESTATUAK"

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

Dorleta
Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

ANGELINES



Autozerbitzua

Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

KIXKOR
TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

VALDEZATE
taberna

Bizkaia 5 / ☎ 79 20 05
ARETXABALETAKO

TXIMAK
ileapaindegi
misto

Herriko Plaza, 5 - behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETAKO

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETAKO

Murrukixorekin ekintzaz betetako hilabetea

Orain artean azaroan antolatu izan du Murrukixok mendiko astea. Aurten ostera, Zaraia zinema itxita egon dela eta datozen egunetan egingo da mendi ihardunaldia. Gainera, astebete barruan egitarau guztia sartu beharrean luzatu eta hilabete osoan zehar egingo da. Horrela domekeroko urteerak ere egitarauaren barruan sartzen dira.



MENDI IHARDUNALDIAK

Urtarrilak 12 eguakotxa

• Juanito Oiarzabal
TRILOGIA en el Himalaya
Zaraia zineman gaueko 10etan

Urtarrilak 19 eguakotxa

• Manu Lazpiazu
INTSUMISIOA BAFIN diapositiba
emanaldia
Zaraia zineman gaueko 10etan.

Urtarrilak 20 zapatua

• Mendi bizikleta urteera (herri mailan)
Urteera ordua goizeko 9retan
Partenoitik.

Urtarrilak 26 eguakotxa

• Gema M. Arrugaeta
MADRE DE DIOS (Amazonas)
diapositiba emanaldia
Zaraia zineman gaueko 10etan.

Eski urteera

Murrukixoko M. T. antolatu datorren urtarrilaren 13 eta 14an Gavarnie eta Luz Ardidenera eski urteera egongo da. Bazkideek 8.800 pezeta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 9.300 pezeta. Kopuru horretan sartzen da, alojamentua, for feita eta bidaia. Seguruarekin 500 pezeta gehiago.

Urtarrilak 27 zapatua

• Gazte urteera. Disfruting
Urteera goizeko 9retan partenoitik.

Urtarrilak 28 domeka

• Mendi urteera. Aitzgorri-Aloña.
Tontorrik tontor.
Urteera 8retan partenoitik.

Otsailak 2 eguakotxa

• Murrukixoko batzar orokorra
Murrukixoko lokalean arratsaldeko
7retan.

• Batiz Goikoetxea AITZGORRI-
NEGUAN diapositiba emanaldia
Zaraia zineman gaueko 10etan.

Otsailak 4 domeka

• BABAJANA LEIXARGARATEN
Urteera partenoitik goizeko 9retan.

Mankomunitateak antolatutako olinpiadetan Aretxabaletako bi taldeek ez zuten emaitza onik lortu

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29an jokatu ziren Deba Garaiko Mankomunitateak antolatutako olinpiadak. 16 taldek hartu zuten parte, hoiere artean, 8 Oñatitiek, 3 Bergararik, 2 Aretxabaletatik eta 2 Arrasatetik. Aretxabaletatik "Las Kagau" eta "Puskerrak" taldeek. Las Kagau taldea 7. gelditu zen eta Puskerrak azken bigarren postuan.

Klasifikazio orokorrean irabazlea, Mungatxurra talde bergararra izan zen eta sari gisa, Candanchura astebeteko bidaia eta trofeoa eskuratu zuen. 2. Dream Team taldea, hauentzat 50.000 pezetako kirol materiala eta trofeoa. 3. barrez, Sosotarrak taldearentzat, aterkinak eta trofeoa. 4. arentzat, Beti traban taldearentzat, poltsak. Bosgarren klasifikatu zen taldea, Arguedes Independiente taldea izan zen. Hori bai, partehartzaile guztiek kamiseta bana jaso zuten.

Lehenengo esperientzia dela kontutan izanik antolatzaileek oso balorazio baikorra egin dute herrien arteko olinpiada honen inguruan. Datorren urtera begira ere badago Deba Garaiko II. olinpiada antolatzeke asmorik.

MAITE
ileapaindegia

/// // // //

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABALETA

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

JOLAS
LEKU

Mitarte, 10
Aretxabaleta

BASABE
Jatetxea

- Bazkariak
- Menuak
- Karta merkeak

Basabe Bidea z/g ☎ 79 91 84
ARETXABALETA



Azken urteetan moduan, aurtengo gabonetan ere, Ortzadarren eskutik Bilboko Pin-era joateko aukera izan zuten herriko gaztetxoenek. Aretxabaletatik 63 neska-mutiko eta 9 monitore joan ziren, bi autobuskada. Arratsalde osorako urteera izan zen eta zer esanik ez dago ondo baino hobeto pasatu zutela guztiek. Galdetu bestela argazkiko, Nerea Lete, Kristina Garcia, Mireia Valle, Yera Sanchez eta Larraitz Antxiari.



Bilboko Pin-ean umeak baino hobeto

Kristina, Mireia eta Yera aurten lehenengo aldiz joan dira Pin-era, Larraitz eta Nerea barrez lehenago ere joanda zeuden.

Sei neskek fenomeno pasatu zutela esan digute, eta Pin-a itzela zela ere bai. Izan ere horrenbeste gauza sartzen diren lekuak haundia izan behar du derrigorrez. Hara zer aurkitu zuten bertan, landarak landatzeko postua, UNICEFeko materiala, ponietan eta patinetan ibiltzeko aukera, uretako eta bestelako atrakzio mordoa, Noria, gabonetako otarra itzela (Guinnes-eko record-a gainditu duena) eta jakina Super Bat pila bat ere han zegoen.

Eta sei neska hauei zer gustatu zitzaion gehien, ba... Nerea eta Larraitzi, beldurrezko etxea eta beste hirurei barrez, atrakzio tropikala; jarri eta bueltak ematen diren tresna hoietako bat. Mareatzeko ere...

Baina dena ez zen larrosa kolorekoa izan, sustorik ere pasatu zuten gure herriko neskek. Mireia, Yera eta Kristina esaterako, bueltak ematen dituen atrakzio hoietako batean jarri ziren eta bertako arduradunak ez zien segurua itxi. Orduantxe bai larri pasatu zutela segurua eusten.

Baina momentuko sustoa besterik ez, denak barrira joateko gertu daude eta.

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69


Martini

RELOJERIA - BIFIXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

 **Zenbaki**

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

**INDUSTRIALDEA
MEDIKU-ZENTROA**

Luis Orruño
Medikua
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea
Pabelloi F-O b
☎ 79 06 82
ARETXABALETA

BP Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



G abonak pasatu diren arren, ondo dago jai hauen inguruko gogoeta batzuk egitea. Aurreko alean, Antonio Zuazuak esaten zuen moduan, bera Olentzero gurdian ekartzen hasi aurretik, Olentzero astoan jeisten zen kalera. Horra hor goiko argazkian, Olentzero asto gainean herriko kaleak zeharkatzen. Hogeitamar bat urte izango dituzte goiko argazkiek, orduan ALKAR arduratzen zen antolaketa lanetaz.

Asto gainean doan Olentzero, **Remigio Gastañaga** da, pipa ahoan, bastoia eskumako eskuan eta marmitta ezkerreko eskuan duela. Orduan ere dantzariz inguratuta zeharkatzen zituen Olentzerok Portasoletik hasi eta ia elizarainoko bideak. Eskumako dantzaria, **Pili Urrutia** da, atzekoa barrez, **Gregorio Lasagabaster**.

Izan ere, orduan jaiotza ez zen plazan jartzen, aurrezki kutxaren aurrekaldean baino. Jaiotzean, benetako behi eta astoa egoten ziren, aingerua eta baita dantzariak ere. Maria, **Glori Gutierrez**, San Jose, (Urzelai ?), aingerua, **Lurdes Etxebarria**, ezkerrean dagoen dantzaria, **Txaro Gorostiaga**.

Urte bisiestu eta olinpikoa



M.J. Aretxaga

Ez dakit atxabaltarrok urte bisiestu baterako gertu gauden baina urte olinpikorako bai behintzat.

Bailara mailan ospatu den olinpiadetan **Inma Miguel** antolatzaile moduan ibili da, baita arbitro lanetan ere pala txapelketan.

Txapelketa berdinean eta kirolari moduan, Sarasua anaiak, **Xabier** eta **losuk** lan azpimarragarria egin zuten, azkenean finala galdu arren. Ez dakit Inmak finalera heltzen lagunduko zien ala ez.

Olinpikoa den saski baloi kirolean, **Nagore Rico** Eskoriatzako hiruko saskiratze txapelketan lehena izan zen jubenil mailan. Badakite Taugresekoek nora begiratu behar duten jokalaria onak gura badituzte.

Urteko azken egunean, gehienok, Bizar-zuriren zaldia noiz etorriko zain geunden artean, inoren zain ez zegoena **Ramon Jausoro** izan zen. Oñatiko San

Silvestreko 4. edizioa irabazi zuen rekorretik gertu geldituz. **Joseba Larrinaga** 2. postuan gelditu zen.

Baina honekin ez zen Joseba konforme gelditu eta Sitgesera joan zen Munduko kopan maratoni erdia korritzera. Han ere 2. heldu zen helmugara. Auskalo holan jarraitu ezkeror noraino helduko den.

Atxabaltako xake taldea ere 2. gelditu zen Arrasateko Santamasetako txapelketan. **Fran** eta **Andoni Migel**, **Joseba Altube** eta **Aitor Alkaide** izan ziren taldeko partaideak. Azken honek, bere abilezia telebistan ere probatu zuela jakin dut eta laister "Rompecabezotas" programan ikusteko aukera izango dugu.

Baina atxabaltarrok ez dira kirolariak bakarrik. Loramendik antolatutako literatur lehiaketan 207 lan aurkeztu dira. Orain lan gogorra izango dutenak epaimahaikoak izango dira. **Iratxe Bengoa**, **Karmele Martinez**, **Itxaro Zubillaga**, **Maria Agirre**, **Saioa Arando**, **Mireia Uribetxebarria**, **Jon Sarasua**, **Alberto Etxabe** eta **Jon Antxia** dira epaimahaia osatzen dutenak.

Nik oparixko bat bidaliko diet ea nire lana aukeratzen duten.

Opari ederra benetan aste honetan norbaitek Arlutz-Ezkutu porran jaso dezakeena, 210.000 pezeta baino gehiago jasoko ditu irabazleak. Nik jokatu biot behintzat.

Agur eta urte bisiestu on guztioi.

A R E T X A Z O K A

- Norbaitek Aretxagazeta aldizkariaren 4., 5., 6. eta 13. zenbakidun aleak etxean eduki eta ez baditu behar, Aretxagazetako bulegora ekartzea eskertuko genioke. (Kultur etxean).

- Urtarrilaren 4an ekuz egindako larruzko poltsa bat desagertu zen. Aurkitu ezkeror deitu 79 05 26 telefonora. Eskerrik asko.

LANA

- Heziketa Berezia (Educación Especial) ikasi duen ikasleak lana egingo luke atzeratu edo heziketa arazoak dituzten haurrei laguntzen. Deitu, (943) 79 52 97 telefonora.

- Lurra lixatu, barnizatu, (barniz ekologikoarekin) eta parketa, tarima jartzen ditut. Eskatu aurrekontua konpromezu gabe. Telefonoa: 71 50 72.

- 1.go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19

- 20 eta 33 urtetako bi neska, umeak edo hirugarren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñagatik galdetu.

- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Aretxabaletan, Solohaundi 25 kalean. Hornitua dago. Harremanetarako telefonoa: 79 46 25

- Aretxabaleta edo inguruko herri batean logela indibidual baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko baimenarekin. Deitu 35 13 28 edo 51 78 44 telefonora eta Jabierregatik galdetu.

- Eskoriatzan jantzitako etxea alokatzen da. Telefonoa: 79 87 26.

- Logela bat salgai dago. Erosi berria da. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espidodun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremanetarako telefonoa: 79 57 07 da eta Pauligatik galdetu.


- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kalerutza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10 kalean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz hornitua dago. Gaez deitu ondorengo telefonora 71 40 47.



PAULO ANTZIA

"Pasiatzea eta UDAko partiduetara joatea gustatzen zait"



Paulo Antxiak 31 urte ditu. Datorren zapatuan atzeratuen aldeko jaialdia egingo da eta Paulok jende asko joatea gura izango luke eta hori bai joaten direnek ahalik eta ondoen pasa dezatela. Bera prest dago edozein gauzatan laguntzeko.

• Zer da Atzeratuen aldeko jaialditik gehien gustatzen zaizuna?

Jendea etortzea gustatzen zait, oso giro polita egoten da eta.

• Urte batean eszenatokira ere igo zenuen, zer dela eta?

Sari bat eman zidaten. Orduan Arantxa Izak omenaldia jaso zuen eta ni bere lehenengo promozioa ikaslea izan nintzenetz neuri ere eman zidaten. Arantxa neu baino gehiago emozionatu zen.

• Olenzero eta erregeak ondo portatu dira?

Bai, erregeek zapatak ekarri dizkirate eta Olenzerok alkon-dara bat.

• Non egiten duzu lan?

Leigaian.

• Ze motako lana egiten duzu?

Coprecirako piezak egiten ditugu, goma bat ipintzen diegu piezei.

• Zer da lanetik urtendakoan egiten duzuna?

Martizen eta eguenetan gimnasia klaseak izaten ditut kiroltxean. Beste egunetan, pasioan joaten naiz. Pasiatzea asko gustatzen zait eta.

• Nora joaten zara pasiatzen?

Gehienetan Eskoriatzara joaten naiz, Urkulura ere bai.

• Eta astebukaeretan zer egiten duzu?

Goizetan, aitakin pasioan joaten naiz, arratsaldean barrez, futbol partidua ikustera joaten naiz.

• Futbol partidurik ez duzula galtzen ere badakigu...

Futbola asko gustatzen zait eta ahal ditudan partidu guztiak ikusten ditut.

• Zer moduz jokatu zuen UDAk azken partidua?

1 eta 0 irabazi zuen baina oso txarto jokatu zuen.

• Eta zein ekipotakoa zara?

Errealekoa.

• Eta Errealeko jokalarik gustokoena zein duzu?

Karpin.

• Beste zaletasunik baduzu?

Mezetara joatea, abestea...

• Noiz joaten zara mezetara?

Zapatuetan monjetara joaten naiz, 6,30etako mezetara.

• Abesti bat abestuko zeniguke Paulo?

Hegoak ebaki banizkio, neria izango zen, ez zuen aldegingo... Mikel Laboa asko gustatzen zait.

• Irakurtzea gustatzen zaizu?

Bai, asko irakurtzen dut. Egunkaria, aldizkariak eta Aretxagazeta ere bai.

• Eta bukatzeko Paulo, lagun asko dituzu?

Bai, lagun asko ditut, Iker, Iñaki, Mariana, e.a.



Gurutzegrama

Isasoko ontziak	Lasaitu	Mahnirako tresna	Dei egin	Bizk. Geza
Esperantza	Xake jokalarik	R' bikoitza	Fosforoa	Ahal naut
Maiz			Joan den urtean	
Gerratik ez		Zula, rogorra	Euritako	
Armaz ingurata		Bat		Urtxintza
Atsekabe		Musika nota	K' birritan	
Nafar autoetan	Kolorea	Guztiz bustiak	500	
Partituren musikariak	Irdioa		T' bustia	
Zuberoan, zara		Bilao	Ahal lituzke	
Bikoa		Zuhaitz nota		Kontso-nantea
(Her.) Akabatu		Etxe-animalia	Mutil!	Xuka, 2. pertsona
Berkelioa			Ukatzeko	
	Garondo			
	Bizk. Gehiegi			
Adarrez	Bizkaiko ibaiak	Azken eta ehenengoak		Röntgen
	Musika nota	Atx!		Nor pluralean
			Portu	
			Sufrea	
Nahastura trinko		Trufa		

Aurreko aleko gurutzegramaren erantzuna

E	M	H	Z	U					
A	U	Z	I	T	E	G	I	A	K
S	A	K	E	A	R	L	O		
E	K	I	A	T	R	A	B	A	
A	L	T	X	O	R	R	A		
A	L	T	Z	A	R	I	I	L	
D	A	K	I	E	T	A			
M	U	S	D	E	E	R	A	K	
N	U	A	Z	T	O	R	E		
J	A	N	A	O	S	I	T		
A	N	A	B	E	R	A	S	T	U
M	A	K	A	R	I	A	Z		
S	D	A	R	A	M	A	K		
B	E	R	E	Z	I	K	I	E	
A	U	I	K	N	O	A			

BERGARA



Urtarrilak 12

ZINEAREN 100. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA
Zine mutua, musika biziaz lagunduta. Novedades
Aretoan izango da gaueko 10,30etan.

Urtarrilak 26 eguakotxa

KONTZERTUA

Mikel Herzog-en kontzertua. Frontoian izango da
gaueko 10,30etan. Sarrerak salgai, Bergara, Eibar,
Arrasate, Elgoibar, Oñati, Durango eta Urretxun.

Urtarrilaren 16tik 28ra

ESKULANEN ERAKUSKETA

Edurne Saiz eta **Edurne Uribealgo** ikasleen
eskulanen erakusketa ikusgai.

OÑATI



Urtarrilak 13

KANTALDIA

Gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian **JABIER**
ARRILLAGAren kantaldia.

Urtarrilak 27 zapatua

ANTZERKIA

Gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian **KATALINA**
DE ERAUSO taldea. Antezlanaren izena, "cuanto
suman 6 mujeres y una bruja".

ARRASATE



Urtarrilak 14

KONTZERTUA

Arrasate Musikalek antolatuta arratsaldeko
7,30etan **Jonderen kontzertua** Amaia Antzokian.

Urtarrilak 19 eguakotxa

ANTZERKIA

Markeliñe antzerki taldearen eskutik "KALE
GORRIAN" emanaldia. Gaueko 10,30etan izango
da Amaia Antzokian. Sarrerak 800 pezeta, gazte
txartelarekin 600 pezeta.

Urtarrilak 20 zapatua

ANTZERKIA

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian **Markeliñe**
antzerki taldearen "KALE GORRIAN" emanaldia.
Sarrera 800 pezeta, gazte txartelarekin 600 pezeta.

**Antzerkirako karakterizazio eta
makilaia tailerra**

Urtariletik martxora bitartean,
guztira 60 ordu. Kuota hileko
3.500 pezeta eta ikasle eta
langabetuentzat 2.500 pezeta.
Izena emateko epea zabalik.



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

DOIKALSE

Elektroerosioa
Zuzendua


Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta

Mitarta, 1 - Tfno: 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA



Murrukixok antolatuta

❖ **MENDI IHARDUNALDIAK 96** ❖
(Urtarrila eta otsaila)

Urtarrilak 24 eguaztena

**LORAMENDI LITERATUR
LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**
Arratsaldeko 7retan izango da
Loramendiko lokalean.

Urtarrilak 26 eguakotxa

DIAPPOSITIBA PROIEKZIOA
Murrukixo M. Eak antolatuta **Madre
de Dios (Amazonas)** bideo
proiekzioa, **Gema M. Arruga**aren
eskutik. Gaueko 10etan Zarai
zineman.

Urtarrilak 27 zapatua

GAZTE URTEERA. DISFRUTING
Murrukixo M. Eak antolatuta **GAZTE
URTEERA** egingo da. Urteera ordua
goizeko 9retan partenoitik.

Urtarrilak 28 domeka

MENDI URTEERA
Murrukixo M. Eak antolatuta
AITZGORRI-ALOÑA tontorrik tontor
urteera. Urteera ordua 8retan
partenoitik.

Otsailak 2 eguakotxa

MURRUKIXOKO BATZAR OROKORRA
Arratsaldeko 7retan Murrukixoko
lokalean.

DIAPPOSITIBA PROIEKZIOA
Murrukixo M.T. antolatuta, **Batiz
Goikoetxe**aren eskutik **AITZGORRI-
NEGUAN**. Zاراia zineman izango da
gaueko 10etan.

Otsailak 4 domeka

BABAJANA LEIXARGARATEN
Urteera partenoitik goizeko 9retan.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- SOS Deiak 088

Urtarrilak 12 eguakotxa

PROIEKZIOA

Murrukixo M. E.ak antolatuta
Juanito Oiarzabalek **"TRILOGIA en
el Himalaya"** eskainiko du. Zاراia
zineman gaueko 10etan.

Urtarrilak 13 zapatua

ZARAIA ZINEMAREN INAUGURAZIOA
Arratsaldeko 5etan, **TAKOLO,
PIRRUTX ETA PORROTX** pailasoak.
Sarrerak salgai 300 pezetan kultur
etxean, ludotekan eta kiroletxean.
Takilan 500 pezeta.

ATZERATUEN ALDEKO JAIALDIA
Gaueko 9,30etan izango da Zاراia
zineman. Ikuskizun desberdinak
izango dira, **Sonora Cerrajera**
taldea, **Aretxabaletako gaztetxo**
akordeo orkestra eta **txiste**
lehiaketa.

Urtarrilak 13, 14

ESKI URTEERA

Murrukixok antolatuta **Gavarnie** eta
Luz Ardidenera eski urteera.

Urtarrilak 19 eguakotxa

DIAPPOSITIBA PROIEKZIOA

Murrukixo M. E. antolatuta **Manu
Lazpiazuren** eskutik **"INTSUMISIOA
BAFIN"**. Zاراia zineman gaueko
10etan.

Urtarrilak 20 zapatua

MENDI BIZIKLETA URTEERA

Murrukixo M. E.ak antolatuta **herri
mailako mendi bizikleta urteera**.
Urteera ordua goizeko 9retan
partenoitik.

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



**UNITED COLORS
OF BENETTON.**

BEHERA PENAKI!

Maialako Errabala, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE